

GASTUAK

Guk enpresa irekitzean izango ditugun gastuak azalduko ditugu.

Gure produktua ekoizteko hainbat gastu izango ditugu, batez ere hasieran. Horretarako, gure konfiantzazko bankuari mailegu bat eskatu beharko diogu, inbertsio bat egin ahal izateko.

Guk bi produktu eskeintzen ditugu gure bezeroei, bat etxebizitzetarako batez ere tuberietan edo ur korrante handia dagoen tuberietan, eta bestea, estolderietan. 3 tamaina ezberdin ditugu 5x2cm 10x2cm eta 15x2cm.

Hasteko kostu finkoak; lokal bat erosiko dugu, gure enpresa bertan eraikitzeko. Lokalak 180000€ balio du eta 30 urtetan ordainduko dugu, 500€ hilabetero. Gainera, gure enpresak deiak izango ditunez eta interneta beharko dugunez, telefonia zerbitzua kontratatuko dugu, lehen bi urtetan 51€, baina behin bi urte pasata, 91€ ordainduko ditugu. Gainera, 300000€ko mailegua eskatu genuen bankuan, eta ondorioz 833€ ordaindu beharko dugu hilabetero 30 urtez. Gure lokala garbitu eta prestatu bezain laster, 3D makinak erosiko ditugu, 80000€ ko prezioa CNC makina bakoitzak Gure produktua ekoizten hasteko; hasieran makina batekin hasiko gara baina gero makina gehiago beharko ditugu gehiago ekoizteko, beraz denbora pasa heinean eta sarreraren kopuruen arabera erosiko ditugu.

Kostu aldakorrak berriz, turbinak gu geuk egingo ditugu 3D makinekin beraz turbina egiteko izango ditugun kostu aldakorrak polipropilenoa. 3D makinak 629€ inguruan erosiko dugu eta polipropilenoa 30€/kiloa inguruan, prezio hauek aldatu daitezke erosten dugun makinaren arabera eta erabiltzen dugun polipropilenoaren arabera. Azero inoxidablea ere erosi behar dugu errotak material horiekin egingo ditugulako, errota bakoitza egiteko material honen 2 eta 4 kilo artean erabili beharko ditugu; kalkuluak atera ditugu eta 380,52€ ordaindu beharko ditugu hilabeteen.

Errorak alternadoreetan konektatuko ditugu alternadorea delako energia sortzen duen pieza. Alternadoreak ez ditugu guk ekoitziko, hornitzaile bati eskatuko dizkiogu beraz prezioa

aldatu egingo da eskatzen dugun kopuruaren arabera, gutxi gora behera 4564,28€ izango ziren hilabete bakoitzean.

Generadoreak ere behar ditugu eta alternadoreak bezala hornitzaile bati eskatuko dizkiogu, guk errotekin energia mekanikoa sortzen dugulako, mugimenduaren bidez lortu dugulako beraz generadoreekin egingo duguna, energia mekanikoa energia elektrikoa bihurtzea da.

Azkenik, ordaindu beharreko zergak izango ditugu.

Argindarra ere beharrezkoa izango dugu makinak ondo lan egin dezaten, makinak lanean egongo dira egun osoa aste guztian zehar beraz makina bakoitzarengandik gutxi gora behera 2419.20€ izango direla kalkulatu dugu.

Zabor eta uraren zergak batera kalkulatu ditugu biak hiru hilabetero ordaintzen direlako; biak batera ordainduta, 151€ inguru izango litzateke kontuan izanda pixka bat aldatu daitekeela egiten ditugun errota kopuruaren arabera. Azkenik, erositako filamentuan, 3D makinetan erabili behar duguna, 588€ inguru gastatuko ditugu hilabetero, jakinda zifra hau aldatu dezakeela errota kopuruaren arabera.

Gure enpresan 4 taldekide gara, gutako bakoitzak egunero 8 ordu inguru egingo ditu lan egunero, egunen batean ikusten badugu denbora gehiago gelditu behar garela lanean edo astebururen batean ere joan behar garela edo zer arrazoiengatik enpresara joango gera; baina orokorrean jaiegunak eta asteburuak errespetatuko dira.